**“LILA” EMAKUMEEN ETXEAK ETA ELGOIBARKO UDALAK EMANGO DUTEN BERDINTASUNAREN ALDEKO SARIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA (2025)**

**Lehenengoa. Xedea.**

“**Lila” Sariaren** xedea da Elgoibarko Udalerriko gizarte, hezkuntza, politika, ekonomia, kirol eta kultura bizitzako edozein arlotan emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna sustatzen lagundu duten eta horretan nabarmendu diren pertsonek eta/edo erakundeek egindako lana publikoki aitortzea.

**Bigarrena. Deialdia.**

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2025eko **“Lila Sariaren”** deialdia egiten da, laugarrengo edizioari dagokiona.

**Hirugarrena. Hautagaitzak**

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren aldeko **“Lila” Sarirako** pertsona eta/edo erakunde guztiak hautatu ahal izango dira, baldin beren ibilbide edo lanarekin deialdi honen oinarri arautzaileetan aurreikusitako xedea lortzen lagundu badute eta horretan nabarmendu badira.

Pertsona fisikoen kasuan, salbuespen gisa, saria hil ondoren eman ahal izango da.

Pertsona juridikoei dagokienez, lehentasunez, irabazi-asmorik gabeko

**BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DEL PREMIO POR LA IGUALDAD “LILA” DE LA CASA DE MUJERES Y DEL AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR (2025)**

**Primero. Objeto.**

El **Premio “Lila**” tiene la finalidad de otorgar reconocimiento público a la labor desarrollada por personas y/o entidades que hayan contribuido y destacado en la promoción de la igualdad de derechos y oportunidades entre mujeres y hombres en cualquiera de los ámbitos de la vida social, educativa, política, económica, deportiva y cultural, en el municipio de Elgoibar.

**Segundo. Convocatoria.**

Se convoca el **Premio “Lila”** a la Igualdad entre Mujeres y Hombres 2025, en su cuarta edición.

**Tercero. Candidaturas**

Podrán ser seleccionadas al **Premio “Lila”** a la Igualdad entre Mujeres y Hombres, todas aquellas personas y/o entidades que con su trayectoria o labor han contribuido y destacado en la consecución del objeto previsto en las bases reguladoras de la presente convocatoria.

En el caso de las personas físicas, se podrá conceder el premio de manera excepcional a título póstumo.

En cuanto a personas jurídicas, se concederá el premio prioritariamente, a asociaciones y

elkarte eta erakundeei, erakunde publikoei eta enpresa-erakundeei emango zaie saria, baldin eta berdintasun-irizpideak txertatzen badituzte edo emakumeak protagonista badira.

Sariak ohorezkoak dira, eta horien xedea da berdintasunaren sari sinbolikoa ematea eta aintzatespen publikoa egitea.

**Laugarrena. Gaiak.**

Lehentasunezko gai hauek hartuko dira kontuan:

a) Tokiko gobernuetan genero-berdintasunerako politikak bultzatzen dituzten ekimenak.
b) Politika eta ekintza orokorretan genero-zeharkakotasuna ezartzea.
c) Enpleguaren eta immigrazioaren arloan aldaketak sustatzea, genero-ikuspegia txertatuz.
d) Lan-eremuan sexuagatiko bereizkeria desagerraraztea.
e) Emakumeen partaidetza soziala eta ordezkaritza paritarioa sustatzea erabakiak hartzerakoan.
f) Genero-indarkeriaren tratamendua eta prebentzioa.
g) Tokiko eremuan estereotipo sexistak ezabatzea.
h) Emakumeei ikusgaitasuna ematea landa eta/edo hiri munduaren arlo guztietan: komunikabideak, hezkuntza, kirola, artea, publizitatea, jarduera soziala, politikoa edo enpresariala, etab.
i) Ikastetxea antolatzea, espazioak eta denborak banatzea eta bizikidetza sustatzea (indarkeriarik eza, kulturartekotasuna, etab.), hori guztia genero-ikuspegia kontuan izanik.
j) Material didaktikoetan ageri den sexismoa zuzentzea eta hezkidetzaren gaiari buruzko ikerketa sustatzea.
k) Familiaren eta eskolaren arteko hezkidetza-interakzioa.

organizaciones sin ánimo de lucro, instituciones públicas y entidades empresariales destacadas en la incorporación de criterios de igualdad o protagonizadas por mujeres.

Los premios tienen carácter honorífico y consisten en la entrega de distinción simbólica de igualdad y un reconocimiento público.

**Cuarto. Temas.**

Los temas prioritarios que serán tenidos en cuenta son:

a) Iniciativas que impulsen las políticas de igualdad de género en los Gobiernos Locales.

b) Implantación de la transversalidad de género en las políticas y acciones generales.
c) Promoción de cambios en materia de empleo e inmigración, incorporando la perspectiva de género.
d) Erradicación de la discriminación por razón de sexo en el ámbito laboral.
e) Fomento de la participación social de las mujeres y la representación paritaria en la toma de decisiones.
f) El tratamiento de la violencia de género y su prevención.
g) Eliminación de los estereotipos sexistas en el ámbito local.
h) Visibilidad de las mujeres en el mundo rural y/ o urbano en todos los campos: medios de comunicación, educación, deportes, arte, publicidad, actividad social, política o empresarial, etc.
i) Organización del Centro Escolar, distribución de los espacios y tiempos, y promoción de la convivencia (no violencia, interculturalidad, …), todo ello desde una perspectiva de género.
j) Corrección del sexismo en los materiales didácticos y promoción de la investigación sobre temática coeducativa.
k) Interacción coeducativa entre el medio familiar y escolar.

**Bosgarrena. Proposamenak egiteko urteko deialdia.**

Urte bakoitzeko ekainean, 30 egun naturaleko epean, Lilako Mahaiak eta Udaleko Berdintasun Sailak urteko deialdia irekiko dute Udalerriko edozein erakundek edo pertsona fisikok sarietarako hautagaitzak proposatu ahal izan ditzan, Lilako Mahaiak horretarako egingo duen inprimakiaren bidez.

Hautagaitzak aurkezteko epea **2025eko uztailaren 14ra arte, astelehena,** egongo da zabalik.

Udalaren webgunean eta tokiko komunikabideetan berariazko inprimaki bat jarriko da, Elgoibarko edozein erakundek edo herritarrek sari horietarako proposamenak egin ahal izan ditzan.

**Seigarrena. Epaimahaia.**

Epaimahaiak gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak. Elgoibarko alkateak bere kalitatezko botoarekin erabakiko ditu berdinketak. Epaimahaiak, eratu ondoren, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. kapituluko 3. atalean ezarritakoari jarraituko dio, eta isilpeko eztabaidak eta apelaziorik gabeko epaitza izango ditu.

**Zazpigarrena. Epaimahaiaren osaera**

Hautaketa-epaimahaia honako hauek osatuko dute:

**Quinto. Convocatoria anual de propuestas.**

En el mes de junio de cada año, durante un periodo de 30 días naturales, la Mesa de Lila y el Departamento de Igualdad del Ayuntamiento abrirán la convocatoria anual para que cualquier entidad o persona física del municipio pueda proponer razonadamente candidaturas a dichos premios y mediante el formulario al efecto que se confeccionará por la Mesa de Lila..

Plazo de presentación de candidaturas hasta **el lunes 14 de julio de 2025.**

Se habilitará en la página web del Ayuntamiento y en los medios de comunicación local un formulario específico para que cualquier entidad o persona del municipio pueda hacer propuestas a estos premios.

**Sexto. Jurado.**

El jurado adoptará sus acuerdos por mayoría simple. La alcaldesa de Elgoibar dirimirá con su voto de calidad los empates que se produzcan. El jurado, una vez constituido, ajustará su actuación a lo establecido en el Capítulo II, Sección 3ª de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público, siendo sus deliberaciones secretas y su fallo inapelable.

**Séptimo. Composición del jurado**

El Jurado de selección estará compuesto por:

a) Lilaren Mahaiko hiru kide.

b) Berdintasun Saileko teknikaria.

c) Berdintasun Saileko arduraduna.

d) Alkatea.

Epaimahaiburua alkatea izango da, idazkaria Berdintasun teknikaria eta gainerako partaideak bokalak.

**Zortzigarrena. Proposamenak baloratzeko irizpideak**

Proposamen bakoitzari, gehienez ere, 60 puntu eman ahal izango zaizkio, honako irizpide hauen arabera:

Saria emateko, baremo orokor hau hartuko da kontuan:
a) Lanaren edo berdintasun-esperientziaren eragin-eremua (gehienez 10 puntu).
b) Lortutako zeharkakotasun-maila (gehienez 10 puntu).
c) Beste erakunde edo elkarte batzuekin izandako lankidetza (gehienez 10 puntu).
d) Gauzatutako ekintzek gizartean eragiteko eta eraldatzeko duten gaitasuna (gehienez 10 puntu).
e) Berrikuntza, bai jarduera egiteko erabili den sistemak adierazia, bai xede duen esparruak edo kolektiboak adierazia (gehienez 10 puntu).
f) Azken urteotan, emakumeen eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasuna sustatzeko egin den ibilbidea (gehienez 10 puntu).

Deialdi honetan parte hartzeak esan nahi du deialdi honen oinarri arautzaileak eta Epaimahaiaren epaia onartzen direla, baita sariak emateko egintzan parte hartzea ere, hautatutako hautagaietako bat izanez gero.

a) Tres personas componentes de la Mesa de Lila.
b) La persona técnica del departamento de Igualdad.
c) La persona responsable del departamento de Igualdad.
d) La alcaldesa del municipio.

La presidenta del jurado será la alcaldesa, la secretaria la técnica de Igualdad y las demás participantes serán vocales.

**Octavo. Criterios para valorar las propuestas**

Cada propuesta podrá ser valorado con un máximo de 60 puntos con arreglo a los criterios siguientes:

Para otorgar el premio, se tendrá presente el siguiente baremo general:
a) Ámbito territorial de repercusión del trabajo o experiencia de igualdad (máximo 10 puntos).

b) Nivel de transversalidad logrado (máximo 10 puntos).
c) Cooperación realizada con otras entidades o asociaciones (máximo 10 puntos).
d) Capacidad de impacto y transformación en la sociedad de las acciones llevadas a cabo (máximo 10 puntos).
e) Innovación, expresada bien por el sistema empleado para su ejecución, bien por el ámbito o el colectivo al que se dirige (máximo 10 puntos).
f) Trayectoria desarrollada para el fomento de la igualdad de oportunidades y de trato entre mujeres y hombres, a lo largo de los últimos años (máximo 10 puntos).

La participación en la presente convocatoria supone la aceptación de las bases reguladoras de la misma así como del fallo del Jurado y de la intervención en el acto de concesión de los premios en caso de ser una de las candidaturas seleccionadas.

**Bederatzigarrena. Bateraezintasunak**

**“Lila” sarirako** hautagaitzak aurkezteko eta aintzat hartzeko bateraezintasun-araubidea ezartzen da, eta ezingo dira baloratu honako baldintza hauek betetzen dituzten hautagaitzak:

a) Lila sarian aurreko edizioetan aintzatespen bera jaso izana.
b) Azken bi legegintzaldietan Elgoibarko Udalean kargu publiko instituzionala bete izana, sari horien urteko edizioari dagokionez.
c) Kargu publikoko desgaikuntza-prozesuetan, delitu fiskaletan edo erabaki judizialaren ondoriozko bestelako delitu penaletan sartuta egotea.
d) Aurreko edizioetan aitorpen hori ukatu izana, edozein kategoriatan.

**Noveno. Incompatibilidades**

Se establece un régimen de incompatibilidades para la presentación y consideración de candidaturas al **premio “Lila”**, y no podrán valorarse candidaturas que presenten las siguientes circunstancias:

a) Haber recibido el mismo reconocimiento en ediciones pasadas en los premios Lila.
b) Haber ostentado cargo público institucional en el ayuntamiento de Elgoibar en las dos últimas legislaturas en relación con la edición anual de dichos premios.
c) Estar inmersa en procesos de inhabilitación a cargo público, o delitos fiscales u otro tipo de delito penal por decisión judicial.
d) Haber rechazado dicho reconocimiento en ediciones anteriores en cualquiera de sus categorías.

**Hamargarrena. Saria.**

Epaimahaiaren erabakia Elgoibarko Udaleko Alkateari helaraziko zaio, ebazpen bidez onar dezan. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **“Lila” Sarian** honako lelo hau jarriko da, dagokion urteari aipamena eginda: “Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Lila Saria”. Saria emateko arrazoi izan diren merezimenduak berariaz aipatzen dituen diploma bat eta 500 euroko zuzkidura izango ditu saridunak. Saria ekitaldi publikoan emango da, Lila Emakumeen Etxearen urteurrenaren astean (iraileko hirugarren astean).

Saria irabazlea hil ondoren emanez gero, ez du 500 euroko zuzkidura izango.

**Décimo. Premio.**

El fallo del Jurado será elevado a la Alcaldía del Ayuntamiento de Elgoibar para su aprobación mediante resolución. El **Premio “Lila”** a la Igualdad entre Mujeres y Hombres, consistirá en una distinción donde conste el lema “Premio “Lila” a la Igualdad entre Mujeres y Hombres con el año correspondiente”, un diploma acreditativo en el que se haga expresa mención de los méritos que motivan su otorgamiento y una dotación de 500€. El premio será entregado en acto público, en la semana del aniversario de la Casa de Las Mujeres Lila (tercera semana de septiembre).

En caso de entregar el galardón a título póstumo, no tendrá la dotación de 500 euros.

**Hamaikagarrena. Gorabeherak.**

Deialdi honetako oinarriak aplikatzean sortzen diren gorabeherak epaimahaiak ebatziko ditu.

**Undécimo. Incidencias.**

Las incidencias surgidas en la aplicación de las bases de la presente convocatoria serán resueltas por el Jurado.